

**ERABAKIA, 2017ko martxoaren 30ekoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, Idazkaritza Nagusirako F 1095 Abokatu aholkularia lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2017ko martxoaren 2ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** Gerentearen erabakiaren bidez, 2017ko martxoaren 24koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.-** Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).

- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).

- Akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa, AZP funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko buruzkoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2014ko abuztuaren 27ko EHAA).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena.-** Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

**Laugarrena.-** Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako h urrenkerari jarraituko zaio h autaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

**Bosgarrena.-** Deialdian aurreikusitako elkarizketa ez dela bastergarria eta bakarrik izangai bat aurkeztu dela kontutan izaten, ez da beharrezkoa egitea.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

**Bigarrena.-** Esleipena 2017ko apirilaren 24ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2017ko martxoaren 30ean

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche





## **I. ERANSKINA ZERBITZU BETERIZUNA**

**2017/03/2**

---

<b>Esleipenduna:</b>	<b>ALBERTO ZABALA BENGOA</b>
<b>Lanpostuaren izena:</b>	<b>Abokatu aholkularia</b>
<b>Lanaldia:</b>	<b>Arautua</b>
<b>Eref.:</b>	<b>F 1095</b>
<b>Zenbatgarrena:</b>	<b>3</b>
<b>Maila:</b>	<b>28</b>
<b>Taldea:</b>	<b>A</b>
<b>Eskala:</b>	<b>Gestio Teknikaria</b>
<b>H.E.:</b>	<b>4; 2009ko irailaren 30a</b>
<b>Langunea:</b>	<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>
<b>Campus:</b>	<b>BIZKAIA</b>
<b>BE:</b>	<b>Zuzenbidean lizentziatua</b>
<b>Ondorio data:</b>	<b>2017ko apirilaren 24a</b>

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - ZERBITZU BETEKIZUNA - 2017ko martxoaren 2ko DEIALDIA

1496	F 1095	Abokatu aholkularia										Hor. 3	HE 4.09/09	IDAZKARITZA NAGUSIA																	
ADJ	DNI	DEITURAK, Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		EMANDAKO SERBITZUAK GUZT.	F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		EHUn ZERB.		F = Taldea		L = Taldea		F & L = Talde		BESTE ADM.		GRADUA		TITUL.	HIZK.	EUSKARA		ELKAR.	
					Urteak	Punt.		Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	Hill.	Puntuak	G	<>	Punt.	Puntos	Puntos	PL
a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak:																															
ESL	18598773F	ZABALA BENGOA, ALBERTO		26,1500	17	7,65	18,00	182	18,00	18	1,80			198	18,00			3	0,30			3	0,30	23	-3	0,5			4	0	